

2022KO OTSAILAREN 22AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO OTSAILAREN 1EKO BILKURAREN AKTA).
- 2.- BAKE-EPAILEAREN IZENDAPEN PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.
- 3.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.
4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu). Ez etortzearen arrazoia ematen da.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO OTSAILAREN 1EKO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2022ko otsailaren 1eko bilkuraren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- BAKE-EPAILEAREN IZENDAPEN PROPOSAMENARI BURUZKO ERABAKIA.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, Zegamako Udaleko Udaltzarrak, gehiengo osoz erabaki behar du, Bake Epailea eta bere ordezkoren lau urterako izendapen-proposamena, Euskal Autonomía Erkidegoko Auzitegi Nagusiari hau helaraziz.

Gaur egun betetako karguaren epealdia amaitzear dagoenez, Udaltzarrak, 2021eko azaroaren 23ko bilkuran onartutakoaren arabera, Zegamako bake epaile titular eta ordezkoa aukeratzeko prozedurari ekin zion.

Horren arabera, 2021eko abenduaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletzeko iragarki taulan (eta udal web gunean) argitaratu eman zen adierazitako deialdia.

Eskaerak aurkezteko epea igaro ondoren, Udal honetan honako eskaerak aurkeztu ziren:

-Mikel Berasategi Asurmendi.

Eskatzaileak beren eskaeratan adierazi du ez duela ezgaitasun edo bateraezintasun arrazoirik. Korporazio honek, gaia eztabaïdatu ondoren eta aurkeztutako pertsonari buruzko duen ezagutza eta horren erabilgarritasun eta egokitasuna kontuan izanik, bozketa egiten du, honako emaitzarekin:

1. Mikel Berasategi Asurmendi jauna, bake-epaile titular bezala, 8 boto.

Ezargarria den araudian ezarritakoa ikusirik, Udaltzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost kideen eta EH Bildu taldeko etorritako hiru kideen aldeko botoekin, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Mikel Berasategi Asurmendi jauna, 72.605.277G NA zenbakia duena, Zegamako Bake-epaile titular kargua betetzeko izendatzea proposatzea, eta beste eskaerarik ez dagoenez, ordezeko Bake-epaile kargua betetzeko izendapen proposamena ez da egiten.

Bigarrena.- Aurreko izendapen-proposamena, dagokion moduan Euskal Autonomía Erkidegoko Auzitegi Nagusiari helaraztea, legedian adierazitako egiaztagiriekin batera.

3.- ZEGAMAKO OSTATUAREN ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.

Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa bideratzeko bideratu den espedientea ikusirik, administrazio eta tekniko baldintza-pleguetan adierazitakoaren arabera.

Kontratazio egutegia:

- 1.- Lizitazioaren iragarkia kontratazio plataforman: 2018-09-27
- 2.- Eskaintzen aurkezpena: 2018-10-15 arte, 15.00 orduak.
- 3.- "A" kartazalaren irekiera, "kontratatzeko gaitasuna, kaudimena eta balio judizio bidez balioztatuta daitezkeen irizpideak": 2018-10-16 11:45 orduetan.
- 4.- "B" kartazalaren irekiera "diru-proposamena eta automatikoki balioesteko irizpideak":

2018-10-16 13:00 orduetan.

Horren arabera, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 16an, kontratazio organoari proposatu zion erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonsori 1234H NA (azken lau zenbakiak) esleitzea.

Zegozkion agiriak aurkeztu ondoren, Udalbatzarrak, 20219ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erreferentziako kontratua Eduardo Cuesta Alonso jaunari esleitzea erabaki zuen, hurrengo era honetan:

Prezioa: 1.350,00 euro gehi BEZ hilabeteko.

Egite epea: Bi (2) urte, luzagarria gehienez sei (6) urte egin arte.

Bermearen zenbatekoa: 2.500,00 euro.

Pleguan eta proposamenean jasotako gainontzeko baldintzak.

Zentzu horretan, eta hasierako esleipenetik bi urte igaro direla kontuan hartuz, kontratu horren urtebeteko luzapena formalki onartzea dagokio.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko hiru ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Zegamako Ostatuaren zerbitzua emateko kontratazioa urtebetez luzatzea onartzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Eduardo Cuesta Alonso jaunari jakinaraztea.

4. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkutatik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 010/0122 erabakia, urtarrilaren 31koa, 1 zenbakidun fakturen erlazioa (urtarrila) - guztira 16.596,62 euro- onartuz.
- 01/0222 erabakia, otsailaren 1ekoa, egurra ateratzeko lanak amaitu ondoren ezarritako abala itzultzea onartuz.
- 02/0222 erabakia, otsailaren 7koa, trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergan, espedienteaz azaldutako arrazoiengatik, hobari-onuradunen zerrenda onartuz.
- 03/0222 erabakia, otsailaren 7koa, ondasun higiezinaren gaineko zergan familia ugarien titular izateagatik hobari-onuradunen zerrenda onartuz.
- 04/0222 erabakia, otsailaren 7koa, gizarte segurantzako diru-bilketa ataletik jasotako zor erreklamazioekiko balio gabetzeko eskaerak eta errekurtsioa bideratuz.
- 05/0222 erabakia, otsailaren 8koa, Ugarte Zelai 12 eraikineko 2C eta 3B etxebizitzaren lehen erabilpeneko baimena emanez.
- 06/0222 erabakia, otsailaren 8koa, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2022ko errolda onartuz (kobrantza epea ezarri eta argitaratzea ebatziz ere).
- 07/0222 erabakia, otsailaren 10ekoa, Soraluze baserria berreraikitze eskaera jendaurrean jarritz.

- 08/0222 erabakia, otsailaren 10ekoa, 2 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila) - guztira 71.393,94 euro- onartuz.
- 09/0222 erabakia, otsailaren 15ekoa, Gipuzkoako Kontratazio Zentralak deitutako energia elektrikoaren hornidura esparrura atxikituz.
- 010/0222 erabakia, otsailaren 18koa, lan baimena emateari buruzkoa.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira adierazten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko seiak eta berrogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

